



UDAN ATZERIAN IKASTEKO BEKAK

Eusko Jaurlaritzak udan Hizkuntzak Atzerrian Ikasteko dirulaguntzen deialdia argitaratu du. Plaza bakoitzak kontzeptu hauek hartzen ditu barnean: joan-etorriko bidaia, aseguru, matrikula eta eskola materiala, ostatua, mantenua eta ikastaroa egingo den zentrorako hiri-garraioa.

Bertan parte hartzeko ondorengo baldintzak bete behar dira:

-Ikaslea DBHko 3., 4. edo Batxilergoko 1., 2. mailan matrikulatua egotea eta eskatzen den hizkuntza aurreko 2 urteotan ikasi izana.

-Aukeratzen den hizkuntzaren iazko kalifikazioak gutxienez 7koa izan behar du. Eta aurreko mailako batz besteko nota + iazko aukeratutako hizkuntzaren notak 16 puntukoa izan behar du gutxienez.

-Aurreko urteetan, Hezkuntza Sailak egindako deialdian plazarik eskuratu ez izana atzerrian hizkuntzak ikasteko

-Asti Lekuko ikasleek aukeratu ditzaketen tokiak **Irlanda, Erresuma Batua** eta **Frantzia** dira (ikastolan ikasten dituzten atzerriko hizkuntzak ingelesa eta frantsesa direlako). Horietatik bat, bi edo hirurak hautatu daitezke. Bat baino gehiago badira, ordena lehenetsi behar da.

Bide elektronikoz egin daiteke eskaera, www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus web-aren bidez, eta bi aukera hauetako bat baliatuz:

- A) Ziurtagiri digitalaren bidez sartuta (NAN, Izenpe txartela...) edo itsasontzien jokoa erabilita (B@kq). Ziurtagiri digitala erabiltzeak aurkezpen telematikoa egin beharra dakar. Eskabidea elektronikoki sinatu beharko da. Aukera hau erabiliz (A aukera) ez da beharrezkoa aplikazio informatikoak sortutako inprimakia ikasketa-zentroan aurkeztea
- B) Sisteman erregistratuta, helbide elektronikoko baten bidez eta honako bide hauetako bati jarraituta: HNA (Hezkuntza Nortasun Agiria), jaiotegunarekin batera edo NANA

Sisteman helbide elektronikoko baten bidez erregistratuta aurkezten bada eskabidea (**B aukera**), **nahitaezkoa izango da betetako eskaera-formularioa inprimatzea, izenpetzea eta DBHko idazkaritzan aurkeztea.**

Mozilla Firefox nabigatzailea erabili.

Eskatzaileak, ez baldin badauka eskabide telematikoa egiteko bitartekorik, ikastolako DBHko idazkaritzara joanda egin ahal izango du.

Sinatutako eskaerak aurkezteko edo eskaera berriak bideratzeko epea: **Abenduaren 14rarte**, DBHko idazkaritzan, 8:30etik 13:30era eta 15:00etatik 17:30era.

INFORMAZIO OSAGARRIA IKUSTEKO: Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkaria 2022.11.14